# I ARABAKO FORU ALDUNDIA
# DIPUTACION FORAL DE ALAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

**486**

**3/2001 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, hainbat aldaketa egiten zaizkio Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 27ko 124/93 Foru Dekretuari, zeinak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegia onartzen baitu.**

Abenduaren 15eko 3422/2000 Errege Dekretuaren bidez, besteak beste, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretua aldatu da, zeinak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegia onartzen baitu.

Ekonomia Itunean ezarritakoa kontuan hartuta, 27. artikuluan ezarritakoa bereziki, egokitzat jo da aipatu Errege Dekretuan Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez jasotako aldaketak Lurralde Historikoaren zerga-sisteman ere sartzea.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horretaz egindako txostenak ikusi dira.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.- Apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren bidez onartu zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegian egin beharreko aldaketak.**

**1**. 9. artikuluko 1. paragrafoko 2 zenbakiko A letra eta 3 zenbakia aldatu eta honela idatzita geratuko dira:

“2. Zerga ezartzen den lurraldean finkatuta ez dagoen eskuratzaile batek esportatzen edo bidaltzen dituen ondasunen entregak, edo haren izenean eta kontura diharduen hirugarren batek egindakoak, kasu hauetan:

A) Merkataritza erregimenean egindako entregak.

Entregatu beharreko ondasunak merkataritzako bidalketa bat direnean, baldintza hauek bete beharko dira salbuespena lortzeko:

a) Aurreko zenbakian ezarritakoak.

b) Ondoko 3. zenbakiko laugarren lerroaldeko d) letran ezarritakoa gorabehera, eskuratzeko prest utzi ondoren, ondasunak hilabeteko epean eraman beharko dira aduanara eta bertan dagokion esportatze-agiria aurkeztuko du eskuratzaileak.

Agiri horretan Erkidegoan finkatutako hornitzaileren izena ere jasoko da, esportatzailea den aldetik, bai eta haren Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eta hark egindako ordainagariaren erreferentzia ere; eskuratzaileak agiriaren kopia bidali beharko dio hornitzaileari, irteerako aduanak izapidetua.”

“3. Esportatzen diren ondasun higigarrietan egindako lanak.

Zergari buruzko Arauaren 24. artikuluko Bat paragrafoko 3. zenbakiko g) letran ezarritakoa gorabehera, salbuetsita daude horretarako eskuratu edo inportatu diren ondasun higigarrietan egindako lanak, baldin eta lan horiek egin dituenak esportatu edo garraiatu baditu Erkidegotik kanpo, edo Zergaren ezarpen-lurraldean finkatuta ez dagoen jasotzaile batek, edo haietako baten izenean eta kontura diharduen beste pertsonaren batek.

Lan horiek ondasunak hobetu, eraldatu, mantendu eta konpontzeko egin daitezke, bai eta haiei edozein jatorritako ondasunak gehituz ere, ondasunak Arauaren 24. artikuluan adierazitako aduana-erregimenei lotu beharrik gabe.

Zenbaki honetako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko aldi baterako inportazioko aduana-erregimenen babespean dauden ondasu-

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

**486**

**DECRETO FORAL 3/2001, del Consejo de Diputados de 23 de enero, que introduce modificaciones al Decreto Foral del Consejo de Diputados 124/93, de 27 de abril, del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.**

Mediante Real Decreto 3422/2000, de 15 de diciembre, se modifican, entre otras disposiciones, el Real Decreto 1624/1992, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Considerando lo dispuesto en el Concierto Económico, especialmente en su artículo 27, se estima oportuno incorporar al sistema tributario de este Territorio Histórico las modificaciones contenidas en el citado Real Decreto en relación con el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

A propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada el día de hoy,

DISPONGO:

**Artículo Único.- Modificaciones del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, aprobado por Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril.**

**1**. Se modifica el número 2.º, letra A y el número 3.º del apartado 1 del artículo 9, que quedarán redactados de la siguiente forma:

“2.º Entregas de bienes exportados o enviados por el adquirente no establecido en el territorio de aplicación del Impuesto o por un tercero que actúe en nombre y por cuenta de éste en los siguientes casos:

A) Entregas en régimen comercial.

Cuando los bienes objeto de las entregas constituyan una expedición comercial, la exención quedará condicionada al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Los establecidos en el número anterior.

b) Sin perjuicio, en su caso, de lo dispuesto en la letra d) del párrafo cuarto del número 3.º siguiente, los bienes deberán conducirse a la aduana en el plazo de un mes siguiente a su puesta a disposición, donde se presentará por el adquirente el correspondiente documento aduanero de exportación.

En este documento se hará constar también el nombre del proveedor establecido en la Comunidad, a quien corresponde la condición de exportador, con su Número de Identificación Fiscal y la referencia a la factura expedida por el mismo, debiendo el adquirente remitir a dicho proveedor una copia del documento diligenciada por la aduana de salida.”

“3.º Trabajos realizados sobre bienes muebles que son exportados.

Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 24, apartado Uno, número 3.º, letra g) de la Norma del Impuesto, están exentos los trabajos realizados sobre bienes muebles adquiridos o importados con dicho objeto y exportados o transportados fuera de la Comunidad por quien ha realizado dichos trabajos o por el destinatario de los mismos no establecido en el territorio de aplicación del Impuesto, o bien por otra persona que actúe en nombre y por cuenta de cualquiera de ellos.

Los referidos trabajos podrán ser de perfeccionamiento, transformación, mantenimiento o reparación de los bienes, incluso mediante la incorporación a los mismos de otros bienes de cualquier origen y sin necesidad de que los bienes se vinculen a los regímenes aduaneros comprendidos en el artículo 24 de la Norma.

La exención de este número no comprende los trabajos realizados sobre bienes que se encuentren al amparo de los regímenes

netan egindako lanei, inportazio-eskubideetatik guztiz edo zati batez salbuetsita daudenei, ez eta aldi baterako inportazioko zerga-erregimenaren babespean daudenei ere.

Lanak salbuesteko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Paragrafo honetako 2. zenbakian ezarritakoak; lanak egiten dituenak edo Zergaren ezarpen-lurraldean finkatuta ez dagoen lanen jasotzaileak bete beharko dituzte, dagokion eran.

b) Zergaren ezarpen-lurraldean finkatuta ez dauden pertsonek eskuratu edo inportatu beharko dituzte ondasunak, edo haien izenean eta kontura dihardutenek, ondasunei lan jakin batzuk eransteko asmoz.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako Zergaren ezarpen-lurraldean finkatuta ez dauden inportatzaileen edo eskuratzaileen kontura egingo dira lanak.

d) Lanak egiten dituenak ondasunak jaso ondoren sei hilabeteko epean burutu beharko ditu, eta jaso izanaren agiria bidali beharko dio Zergaren ezarpen-lurraldean finkatuta ez dagoen eskuratzaileari edo, hala badagokio, hornitzaileari.

Interesatuak eskatuz gero lanak burutzeko behar besteko denboraz luzatu ahalko da aurreko lerroaldean ezarritako epea. Zerga Administrazioaren sail egokian aurkeztuko da eskaria, eta hark baimena emango du egin beharreko lanen izaerak hala justifikatzen badu; eskaera egin ondoren hilabeteko epea igaro eta Administrazioak erantzuten ez badu, luzapena baimendu dela ulertuko da.

e) Lanak amaitutakoan, ondasunak hurrengo hilabetearen barruan bidali beharko dira aduanara esportatzeko.

Lanen jasotzaileak edo lanak egiten dituenak egingo dute esportazioa; Erkidegoan finkatuta dagoen hornitzailearen identifikazioa eta hark egindako ordainagiriaren erreferentzia adierazi beharko dira esportazio-agirian.

Hirugarren batek ere egin dezake hori, lanak egiten dituenaren edo lanen jasotzailearen izenean eta kontura.

f) Finkatuta ez dagoen jasotzaileak edo, hala badagokio, lanak egiten dituenak irteerako aduanak izapidetutako esportazio-agiriaren kopia igorri beharko dio ondasunen hornitzaileari.

**2.** IV bis Titulua erantsiko da, honela idatzitakoa:

“IV BIS TITULUA

Subjektu pasiboa

24 bis artikulua.- Landu gabeko urrearen eta urrezko produzktu erdilanduen kontzeptua.

Zergari buruzko Arauaren 84. artikuluko Bat paragrafoko 2. zenbakiko b) letran ezarritakoaren ondorioetarako, landu gabeko urretzat eta urrezko produktu erdilandutzat joko da urrezko produktu amaituak lantzeko lehengai gisa erabili ohi dena, hala nola lingoteak, ijeztuak, xaflak, orriak, hagaxkak, hariak, bandak, tutuak, granailak, kateak edo dituen ezaugarri objektiboengatik azken kontsumora zuzentzen ez den beste edozein.”

**3.** Idazketa berria emango zaio 26. artikuluari, honen arabera:

“26. artikulua.- Zerga tasa murriztua

Zergari buruzko Arauaren 91. artikuluko Bat.2 paragrafoko 15. zenbakian ezarritakoaren ondorioetarako, jasotzailea ez dela enpresaburu edo profesional gisa ari, etxebizitza beretzat erabiltzen duela eta etxebizitzaren eraikuntza edo birgaitzea obrak hasi baino bi urte lehenago amaitu zela egiaztatzeko, obren jasotzaileak idatzizko adierazpen sinatua zuzenduko dio subjektu pasiboari, eta bertan aurretik aipatutako zehaztapenen berri emango du, bere erantzukizunaren pean.

Zergari buruzko Arauaren 87. artikuluko Bat paragrafoko 1. zenbakian ezarritako kasuren bat gertatuz gero, jasotzaileak solidarioki erantzungo dio dagokion zerga-zorrari; horretaz gain, Arauaren 170. artikuluko Bi paragrafoko 2. zenbakian ezarritakoa ere aplikatu ahalko da.”

**4.** 30. artikuluko 4. paragrafoko 2. zenbakia aldatu eta honela idatzita geratuko da:

“2. Landu gabeko urrea eta urrezko produktu erdilanduak entregatzea, Zergari buruzko Arauaren 84. artikuluko Bat paragrafoko 2.

aduaneros de importación temporal, con exención total o parcial de los derechos de importación, ni del régimen fiscal de importación temporal.

La exención de los trabajos quedará condicionada al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Los establecidos en el número 2.º de este apartado, cumplimentados por parte del destinatario de los trabajos no establecido en el territorio de aplicación del Impuesto o del prestador de los mismos, según proceda.

b) Los bienes deberán ser adquiridos o importados por personas no establecidas en el territorio de aplicación del Impuesto o por quienes actúen en nombre y por cuenta de dichas personas, con objeto de incorporar a ellos determinados trabajos.

c) Los trabajos se prestarán por cuenta de los adquirentes o importadores no establecidos a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido en el territorio de aplicación del Impuesto.

d) Los trabajos deberán efectuarse en el plazo de los seis meses siguientes a la recepción de los bienes por el prestador de los mismos, quien deberá remitir un acuse de recibo al adquirente de los bienes no establecido en el territorio de aplicación del Impuesto o, en su caso, al proveedor.

El plazo indicado en el párrafo anterior podrá ser prorrogado a solicitud del interesado por el tiempo necesario para la realización de los trabajos. La solicitud se presentará en el Departamento correspondiente de la Administración Tributaria, que lo autorizará cuando se justifique por la naturaleza de los trabajos a realizar, entendiéndose concedida la prórroga cuando la Administración no conteste en el plazo de un mes siguiente a la presentación de la solicitud.

e) Una vez terminados los trabajos, los bienes deberán ser enviados en el plazo del mes siguiente a la Aduana para su exportación.

La exportación deberá efectuarse por el destinatario de los trabajos o por el prestador de los mismos, haciendo constar en el documento de exportación la identificación del proveedor establecido en la Comunidad y la referencia a la factura expedida por el mismo.

También podrá efectuarse por un tercero en nombre y por cuenta del prestador o del destinatario de los trabajos.

f) El destinatario no establecido o, en su caso, el prestador de los trabajos deberán remitir al proveedor de los bienes una copia del documento de exportación diligenciada por la aduana de salida.”

**2.** Se añade un nuevo Título IV bis con la siguiente redacción:

“TÍTULO IV BIS

Sujeto pasivo

Artículo 24 bis.- Concepto de oro sin elaborar y de producto semielaborado de oro

A los efectos de lo dispuesto en el artículo 84, apartado Uno, número 2.º, letra b) de la Norma del Impuesto, se considerará oro sin elaborar o producto semielaborado de oro el que se utilice normalmente como materia prima para elaborar productos terminados de oro, tales como lingotes, laminados, chapas, hojas, varillas, hilos, bandas, tubos, granallas, cadenas o cualquier otro que, por sus características objetivas, no esté normalmente destinado al consumo final.”

**3.** Se da nueva redacción al artículo 26, que quedará redactado como se indica a continuación:

“Artículo 26.- Tipo impositivo reducido

A efectos de lo previsto en el artículo 91, apartado Uno.2, número 15.º de la Norma del Impuesto, las circunstancias de que el destinatario no actúa como empresario o profesional, utiliza la vivienda para uso particular y que la construcción o rehabilitación de la vivienda haya concluido al menos dos años antes del inicio de las obras, podrán acreditarse mediante una declaración escrita firmada por el destinatario de las obras dirigida al sujeto pasivo, en la que aquél haga constar, bajo su responsabilidad, las circunstancias indicadas anteriormente.

De mediar las circunstancias previstas en el número 1.º del apartado Uno del artículo 87 de la Norma del Impuesto, el citado destinatario responderá solidariamente de la deuda tributaria correspondiente, sin perjuicio, asimismo, de la aplicación de lo dispuesto en el número 2.º del apartado Dos del artículo 170 de la misma Norma.”

**4.** Se modifica el número 2.º del apartado 4 del artículo 30, que quedará redactado como se indica a continuación:

“2.º Las entregas de oro sin elaborar y de productos semielaborados de oro a que se refiere el artículo 84, apartado Uno, núme-

zenbakiko b) letran aipatutakoak, eta inbertsiorako urrea entregatzea, Arauaren 140. quinque artikuluan aipatutakoa."

**5.** 31. artikuluko 1. paragrafoko 4. zenbakia aldatu eta honela idatzita geratuko da:

"4. Itzultzeko eskabideen guztirako zenbatekoa 33.500 pezetatik beherakoa bada (201,34 euro) ezingo dira onartu.

Hala ere, 4.200 pezetatik gorako itzultze-eskabideak (25,24 euro) onartu ahalko dira erreferentziazko epea urte naturala bada."

**6.** Baliogabetu egiten da 33. artikuluko 1. paragrafoa.

**7.** 38. artikuluko 2. paragrafoa aldatu eta honela idatzita geratuko da:

"2. Aurreko 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera sortu den kuoten zenbatekoa Zergari buruzko Arauaren 123. artikuluko Bat paragrafoko 2. lerroaldean aipatutako eragiketek sortarazitako kuotei erantsi beharko zaie, eta jarduera garatzeko diren aktibo finkoak eskuratzeko edo inportatzeko jasan edo ordaindu diren kuoten zenbatekoan murriztu ahalko dira; ibilgetuaren elementuak joko dira horrelakotzat.

Hala ere, ondasun eta zerbitzu jakin batzuen erosketa finantzatzeko kapital-subentzioak eman badira eta ondasun edo zerbitzu horiek Zergaren menpe dauden eta salbuepenik ez duten eragiketen bidez eskuratu badira, eragiketa horiengatik jasandako edo ordaindutako kuoten kenkariari dagokion zenbatekoa soilik finantzaketarako baliatu diren neurrian gutxituko da. Jaso diren urteko azken epeari dagokion aitorpen-likidazioan gutxituko dira kenkariak, aurretik egindako kenkariak ere erregularizatuz, baina horrek ez du inola ere sortuko interesak edo gainkarguak ordaindu beharra.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa ez zaie aplikatuko Zergari buruzko Arauaren 104. artikuluko Bi paragrafoko 2. zenbakiko hirugarren lerroaldean aipatzen diren diru laguntzei."

**8.** 49. artikuluko 3. paragrafoa aldatu eta honela idatzita geratuko da:

"3. Aurreko paragrafoetan aipatutako ordainagirien jatorrizkoak eta kopiak lau urtez gordeko dira, Zerga sortarazten den egunetik aurrera."

**9.** VIII. Tituluari IV. bis Kapitulua erantsiko zaio, honela idatzitakoa:

"IV. BIS KAPITULUA

Inbertsiorako urrearen erregimen berezia

51 bis artikulua.- Inbertsiorako urrearen kontzeptua

Zergari buruzko arauaren Eranskineko bederatzigarren paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, lingoteen merkatuan onartutako eran pisu hauek egokitzen direla joko da:

a) 12,5 kilogramoko lingoteen kasuan, 350 eta 430 ontza bitarteko urre puruzko edukia dutenak.

b) Aipatutako gainerako pisuen kasuan, benetako pisuan haiekin alderatuta %2 baino gehiagoko diferentziarik ez duten piezak.

51 ter artikulua.- Salbuespenari uko egitea

1. Arauaren 140 ter artikuluko Bat paragrafoan arautzen den salbuespenaren ukoa eskualdatzaileak egindako eragiketa bakoitzeko egin beharko da. Inbertsiorako urrea entregatu baino lehen, edo aldi berean, eskuratzaileari ukoaren berri eman beharko zaio, idatziz. Halaber, entregari Zerga ezarri behar bazaio, Zergaren subjektu pasiboa hura izango dela jakinarazi beharko dio idatziz eskualdatzaileak eskuratzaileari, Arauaren 140 quinque artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Arauaren 140 ter artikuluko Bi paragrafoan arautzen den salbuespenaren ukoa zerbitzua ematen duenak egindako eragiketa bakoitzeko adierazi beharko da; hark zerbitzuaren jasotzaileak sinatutako agiri bat eduki beharko du, non adierazi beharko baita bitartekaritza zerbitzuaren gai den urrearen entregan uko egin zaiola Balio Erantsiaren gaineko Zergaren salbuespenari.

51 quater artikulua.- Erregistratzeko berariazko betebeharrak

Inbertsiorako urrea gaitzat duten eragiketak edo erregimen berezia ezartzen ez zaien beste jarduera batzuk burutzen dituzten enpresaburu edo profesionalek jasotako ordainagirien Erregistro Liburuan jaso beharko dituzte jarduerako atal bereizi bakoitzari dagozkion eskuraketa edo inportazioak, behar bezala bananduta."

ro 2.º, letra b) de la Norma del Impuesto y las entregas de oro de inversión a que se refiere el artículo 140 quinque de la misma Norma."

**5.** Se modifica el número 4.º del apartado 1 del artículo 31, que quedará redactado de la siguiente forma:

"4.º No serán admisibles las solicitudes de devolución por un importe global inferior a 33.500 pesetas (201,34 euros).

No obstante, podrán admitirse las solicitudes de devolución por un importe superior a 4.200 pesetas (25,24 euros) cuando el período de referencia sea el año natural."

**6.** Se deroga el apartado 1 del artículo 33.

**7.** Se modifica el apartado 2 del artículo 38, que quedará redactado de la siguiente forma:

"2. El importe de las cuotas a ingresar que resulte de lo previsto en el apartado 1 anterior deberá incrementarse en las cuotas devengadas por las operaciones a que se refiere el artículo 123, apartado Uno, párrafo segundo de la Norma del Impuesto, y podrá reducirse en el importe de las cuotas soportadas o satisfechas por la adquisición o importación de los activos fijos destinados al desarrollo de la actividad, considerándose como tales los elementos del inmovilizado.

No obstante, las subvenciones de capital concedidas para financiar la compra de determinados bienes y servicios, adquiridos en virtud de operaciones sujetas y no exentas del Impuesto, minorarán exclusivamente el importe de la deducción de las cuotas soportadas o satisfechas por dichas operaciones en la misma medida en que hayan contribuido a su financiación. La minoración de las deducciones se practicará en la declaración-liquidación del último período del año en que se hayan percibido, regularizándose las deducciones que se hubiesen practicado anteriormente, sin que, en ningún caso, ello suponga el pago de intereses o recargos.

Lo dispuesto en el párrafo anterior no será de aplicación a las subvenciones a que se refiere el tercer párrafo del número 2.º del apartado Dos del artículo 104 de la Norma del Impuesto."

**8.** Se modifica el apartado 3 del artículo 49, que quedará redactado de la siguiente forma:

"3. Los originales y las copias de los recibos a que se refieren los apartados anteriores se conservarán durante cuatro años a partir del día del devengo del Impuesto."

**9.** Se añade un nuevo Capítulo IV bis al Título VIII, con la siguiente redacción:

"CAPÍTULO IV BIS

Régimen especial del oro de inversión

Artículo 51 bis.- Concepto de oro de inversión

A efectos de lo dispuesto en el apartado Noveno del Anexo de la Norma del Impuesto, se considerará que se ajustan en la forma aceptada por los mercados de lingotes los siguientes pesos:

a) Para los lingotes de 12,5 kilogramos, aquellos cuyo contenido en oro puro oscile entre 350 y 430 onzas.

b) Para los restantes pesos mencionados, las piezas cuyos pesos reales no difieran de aquéllos en más de un 2%.

Artículo 51 ter.- Renuncia a la exención

1. La renuncia a la exención regulada en el apartado Uno del artículo 140 ter de la Norma se practicará por cada operación realizada por el transmitente. Dicha renuncia deberá comunicarse por escrito al adquirente con carácter previo o simultáneo a la entrega del oro de inversión. Asimismo, cuando la entrega resulte gravada por el Impuesto, el transmitente deberá comunicar por escrito al adquirente que la condición de sujeto pasivo del Impuesto recae sobre este último, de acuerdo con lo establecido en el artículo 140 quinque de la Norma.

2. La renuncia a la exención regulada en el apartado Dos del artículo 140 ter de la Norma del Impuesto se practicará por cada operación realizada por el prestador del servicio, el cual deberá estar en posesión de un documento suscrito por el destinatario del servicio en el que éste haga constar que en la entrega de oro a que el servicio de mediación se refiere se ha efectuado la renuncia a la exención del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Artículo 51 quater.- Obligaciones registrales específicas

Los empresarios o profesionales que realicen operaciones que tengan por objeto oro de inversión y otras actividades a las que no se aplique el régimen especial, deberán hacer constar en el Libro Registro de facturas recibidas, con la debida separación, las adquisiciones o importaciones que correspondan a cada sector diferenciado de actividad."

**10.** VIII. Tituluko VI. Kapitulua honen arabera aldatuko da:

1. VIII. Tituluko VI. Kapituluaren izenburua aldatu eta honela idatzita geratuko da:

"Baliokidetasun-errekarguaren erregimen berezia"

2. Kendu egiten dira VIII. Tituluko VI. Kapituluaren 1, 2 eta 3. atalen izenburuak: "Xedapen orokorrak", "Oinarri ezargarriak proportzionalki zehazteko erregimen berezia" eta "Baliokidetasun-errekarguaren erregimen berezia", hurrenez hurren.

3. Indargabetu egiten dira 55, 56, 57 eta 58. artikuluak: "Txikizkako merkataritzaren erregimen berezietako forma eta erregistro betebeharrak", "Erregimen berezitik kanpo uztea", "Erregimen bereziaren edukia: txikizkako salmentaren jarduera burutzen den lehen urtean ezar daitekeen ehunekoa" eta "Kontabilitate eta erregistro betebeharrak", hurrenez hurren.

4. 59. artikuluaren 2. paragrafoa honela idatzita geratuko da:

"2. Erregimen berezi hau ez da inola ere ezarriko artikulu edo produktu hauei dagokienez:

1. Errepidez ibiltzeko ibilgailu motordunak eta horien atoiak.

2. Itsasontziak.

3. Hegazkinak, abionetak, beste aerontzi batzuk eta belaontziak.

4. Aurretik aipatutako garraiobideentzako osagarriak eta aldatzeko piezak.

5. Bitxiak, harribitxiak, perla natural edo kultibatuak, urrez edo platinoz erabat edo zati batean landutako objektuak, edo kalitateko bisuteria, harribitxiak, perla naturalak edo aipatu metalak baditu, nahiz eta bainua edo txapatua izan.

Zerga honen ondorioetarako honakoak baizik ez dira joko harribitxitzat: diamantea, errubia, zafiroa, esmeralda, akuamarina, opaloa eta turkesa.

Zenbaki honetan ezarritakotik honakoak salbuesten dira:

a) Urrezko edo platinozko bainua edo txapatua duten objektuak horien lodiera 35 mikratik beherakoa bada.

b) Damaskinatuak.

6. Luxuzko larruez egindako jantziak edo apaingarri pertsonalak:

Ondorio hauetarako, animalia hauen larru depilatu gabeak joko dira luxuzkotzat: erbinude zuria, astrakana, breitschwanz-a, burunduky-a, kastorea, zibelina, zibelina txinatarra,zibeta, txintxila, txintxilatzarra, lepazuria, katamotz iberiarra, katajineta, jatuna, gepardoa, jaguarra, lehoia, leopardo zuria, katamotza, otsoa, lepahoria, Kanadako lepahoria, Japoniako lepahoria, mufloia, itsas igaraba, Kamtchatkako igaraba, ozelotea, hartza, panda, pantera, pekan-a, pisshiki-a, platipus-a, tigrea, ipurtatsa, bikuina, bisoia, azeri urdina, azeri zuria, azeri gurutzatua, azeri zilarkara eta shadow azeria.

Zenbaki honetan ezarritakoaz kanpo geratuko dira poltsak, karterak edo antzeko objektuak, bai eta txatal edo hondakinez (buruak, hankak, isatsak, ebakinak, etab.) edo larru arruntez edo imitaziozkoez egindako jantziak.

7. Jatorrizko arte-objektuak, antigualeko eta bildumako objektuak, Zergari buruzko 136. artikuluan definituak.

8. Subjektu pasibo eskualdatzaileak edo hirugarren batzuek eskualdatu aurretik erabili dituzten ondasunak.

9. Hegazti-hazkuntzan eta erlezaintzan erabilitako tresnak eta osagarriak.

10. Petrolio-produktuak, horiek fabrikatu, inportatu edo saltzeagatik Zerga Bereziak ezarri behar direnean.

11. Industrian erabiltzeko makinak.

12. Eraikinak edo urbanizazioak egiteko materialak eta gaiak.

13. Mineralak, ikatza izan ezik.

14. Burdinak, altzairuak eta gainerako metalak eta aleazioak, manufakturatu gabeak.

15. Inbertsiorako urrea, Zergari buruzko Arauaren 140. artikuluan definitutakoaren arabera.

5. Beste paragrafo bat, 4.a, eransten zaio 61. artikuluari, honela idatzitakoa:

**10.** El Capítulo VI del Título VIII quedará modificado de la siguiente forma:

1.º Se modifica el título del Capítulo VI del Título VIII, que quedará redactado de la siguiente forma:

"Régimen especial del recargo de equivalencia"

2.º Se suprimen los títulos de las secciones 1.ª "Disposiciones comunes", 2.ª "Régimen especial de determinación proporcional de las bases imponibles" y 3.ª "Régimen especial del recargo de equivalencia" del Capítulo VI del Título VIII.

3.º Se derogan los artículos 55 "Obligaciones formales y registrales en los regímenes especiales del comercio minorista", 56 "Exclusiones del régimen especial", 57 "Contenido del régimen especial: porcentaje aplicable en el primer año de ejercicio de la actividad de venta al por menor" y 58 "Obligaciones contables y registrales".

4.º El apartado 2 del artículo 59 quedará redactado de la siguiente forma:

"2. En ningún caso será de aplicación este régimen especial en relación con los siguientes artículos o productos:

1.º Vehículos accionados a motor para circular por carretera y sus remolques.

2.º Embarcaciones y buques.

3.º Aviones, avionetas, veleros y demás aeronaves.

4.º Accesorios y piezas de recambio de los medios de transporte comprendidos en los números anteriores.

5.º Joyas, alhajas, piedras preciosas, perlas naturales o cultivadas, objetos elaborados total o parcialmente con oro o platino, así como la bisutería fina que contenga piedras preciosas, perlas naturales o los referidos metales, aunque sea en forma de bañado o chapado.

A los efectos de este Impuesto se considerarán piedras preciosas, exclusivamente, el diamante, el rubí, el zafiro, la esmeralda, el aguamarina, el ópalo y la turquesa.

Se exceptúan de lo dispuesto en este número:

a) Los objetos que contengan oro o platino en forma de bañado o chapado con un espesor inferior a 35 micras.

b) Los damasquinados.

6.º Prendas de vestir o de adorno personal confeccionadas con pieles de carácter suntuario.

